

BERRIGARA

36. zenbakia

JARDUN Elkarte, Bergara

1997, otsailak 7

NORA

Palmitano

Argentinarr euskalduna



FIAT PUNTOa, aluminiozko llantak,
faldoia eta atzeko hegala dituen,
1.250,000 pta.tan zeure esku.

FIAT

AUTOBEREZI

Antigua, 10 Antzuola



Alfa Romeo

A P R O P O

IKASLEENTZAKO

BETAURREKO GRADUATUAK

7.500

pezetatik



P. MANSO
OPTIKA

IRIZAR PASEALEKUA, 2 TLF.: 76 27 86

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
40570 Bergara
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

ARDUN Elkarte.

Zuzendaria:

Enko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar

Lanaketa:

Enko Iturbe

Publizitatea:

Estina Romero

Argipidetzak:

Enko Elortza

Estuen zuzenketak:

Esteban Plazaola

Enko Laskurain

Enko Labaien

Erredakzio kontseilua:

Enko Elortza

Miguel Angel Elkoroberezibar

Enko Labaien

Lamiak:

Enko Rodriguez

Enko Ortega & Jon Alvarez

Enko Ugalde

Enko Azkarate

Lanaketa:

Enko Angorri taldea

Irada:

Enko ale.

Aprimategia:

Enko Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Laguntza:

Enko 91

ISSN:

Enko-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

IÑAKI MATA

Taun-Taun taldekoa

- Noiz ospatuko da Helduentzako Txotxongiloen Nazioarteko Mostra?

- Aurtengo edizioa, maiatzaren 29tik ekainaren 1era bitartean izango da. Gure asmoa orain dela bi urte moduko partaidetza lortzea da eta egunotan programazioa zehazteko lanetan ari gara. Denera, 15 bat talde izango dira eta El espejo negro andaluziarrak eta Two hands bulgariarrak etorriko direla aurreratu daiteke. Taun-Taunen emanaldia aurretik izango da, maiatzaren 22an. Ilusio handia daukagu Mostraren 4. edizio honetarako eta espero dugu, aurreko edizioetan bezala, jendearen erantzuna izatea. Azken batean, Estatuko txotxongilo jaial-



dirik onenetakoa da Bergarakoa.

- Txotxongiloetatik aparte, beste ekitaldirik egongo da?

- Txotxongiloak kalean, tabernetan eta Zabalotegin izango dira eta horrez gain beste aukera batzuk (musika adibidez) aztertzen ari gara. Baina oraindik ez dago programazioa zehaztuta, ezta inaugurazio ekitaldia ere.

"Helduentzako Txotxongiloen Nazioarteko IV. Mostra maiatzaren amaieran egingo dugu"

I T U R R I O N E T I K

Gorlako kantina berria udaberri inguruan zabalduta daiteke

Iazko udaberrian inauguratu zen Gorlako kantina berriak buruhauste bat baino gehiago ekarri dizkio Udalari. Oraindik ere ezin izan zaio kantina inori adjudikatu eta Udalak baldintza plegu berriak kaleratuko ditu berehala. Azkenean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro departamentua izango da kantina berriaren ekipazioa ordainduko duena. Behin kantina adjudikatzen denean, Azkoyen enpresak kantina beharrezko altzari eta tresnekin ekipatuko du. Azkoyen enpresak 1.789.000 pezetako proiektua aurkeztu zuen eta berari adjudikatu zaio proiektua. Kantina udaberrian martxan izatea espero da.

E S A N
D U T E

"Errepide bidez egiten den merkantzien garraioko sektorearen berregituraketa plana mahai gainean jarri eta negoziatzea eskatzen dugu. Zati bat aportatzeko prest gaude, baldin eta sektorearen zati baten aurrejubilizazioa garantizatzeko neurri egokiak hartzen badira, eta planaren kostoari aurre egiteko ordaintzen ditugun zergetatik beste zati bat ere bai. Erregaiaren prezioa, berriz, egunetik egunera aldatzea posible da eta hori eromena da garraiolariak epe luzeago batera ateratzen dituelako kontuak".

ESTEBAN MURUAMENDIARAZ
Sintragiko idazkaria
EGIN

"Banakako txapelketa gertatzeko ezin izango dut prestakuntza plan osoa burutu. Lan fisiko asko egiten ari naiz eta, egia esan, agujetak dauzkat. Txapelketan, garrantzitsuena baldintza onenetan heldu eta imajin ona ematea izaten da".

AITOR ELKORO
Pilotaria
EL DIARIO VASCO



SOL DE OTOÑO

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astlehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



LA CELESTINA

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).



▼▼ Gaur, ostirala, 20:30etan auzo afaria eta Gezalaga anai-arrebek alaitutako erromeria izango dira **Murinondon**. Zapatuan, 16:00etan, Mus Txapelketa, IX. San Blas saria jokatu da. Domeka goizerako meza nagusia, Alai Taldearen emanaldia eta Moises Azpiazu dantza taldearen ekitaldia iragarri dira.

Zinea

▼▼ Argentinarrak hau izango Donostiako Zinemaldiko filmerik txalotuenetakoa izan genuen. **Eduardo Mignognak** zuzenduta, bikote heldu baten arteko erlazioa azaltzen zaigu. Piskanaka-piskanaka **Raul (Federico Luppi)** eta **Clara (Norma Aleandro)** elkarrekin primeran sentitzen direla ohartuko dira. **Norma Aleandrok** aktorea onenaren saria jaso zuen Donostiako Zinemaldian.

▼▼ **Gerardo Vera** zuzendariak **Fernando Rojasen** klasikoan oinarritutako filmea egin du, horretarako aktore ezagunen laguntza izan duelarik: **Penelope Cruz (Melibea)**, **Juan Diego Botto (Calisto)**, **Maribel Verdu (Areusa)** eta **Terele Pavez (Celestina)**. Amodio kontuak zine-klubaren datorren asteko emanaldian.

Deiak

▼ **Erakusketa.** *Garapena eta ingurugiroa* izenburuko erakusketa domekara arte Kultur Etxean ikusgai. Mugen gainetik gobernuaren kanpoko erakundeak antolatuta.

▼ **Erakusketa.** Rikardo Azkargortaren margo erakusketa Madrilera La Kabala erakustokian (Conde de Aranda, 10) martxoaren 8ra arte.

▼ **Oscar Barrera** margolaria-
ren lanak Nahikari tabernan.

▼ **Erakusketa.** Seilu eta Diru Bildumazaleen Elkarteak San Martini eskeinitako erakusketa Udaletxeko Pleno aretoan. Erakusketa domekara arte izango da zabalik, 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara.

Ogia

▼ **Domeka 9:** Konde.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 7:** Mozos.
- ▼ **Zapatua 8:** Camacho.
- ▼ **Domeka 9:** Camacho
- ▼ **Astlehena 10:** Puy.
- ▼ **Martitzena 11:** Guallar.
- ▼ **Eguaztena 12:** Estella.
- ▼ **Eguena 13:** Mozos.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

Karnabalak asteburuan

Takolo, Pirritx eta Porrotx domekan frontoian

Domekan, arratsaldeko 6etan, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldia izango da Frontoian. Jose Mari Agirretxe, "Porrotx" pailazoak, Tantaka Yotanka ikuskizunaren nondik norako nagusiak azaldu dizkigu.

- Indioak al datoz domekan Frontoira?

- Bai, ikuskizunean Takolo, Pirritx eta Porrotxek sioux buruzagi batekin topo egiten dute eta ikusleei bi kultura horien arteko kontrastea azaltzen saiatzen dira. Euskaldunen eta indioen arteko elkartasun jai bat izan nahi du ikuskizunak eta horretarako joko batzuk proposatzen dizkiegu ikusleei: sioux indioen lumak lortu ahal izateko proba batzuk gainditu beharko dituzte eta, ohizkoa denez, Pirritx eta Porrotx aldrebeskeriatan ibiliko dira eta Takolo, aldiz, gu hankaz gora jartzen dugun guztia zuzentzen ahaleginduko da. Eta publikoaren laguntza ezinbestekoa izango da. Futbolistek ikuslegoa 12. jokalaria dela izaten dute; guretzat 4. pailazoa litzateke. Beraien partaidetza ezinbestekoa da.

- Nola definituko zenuke zuen umorea?

- Umeentzat egiten dugua eta eurengandik ere gauza asko jasotzen ditu-



Tantaka Yotanka ikuskizuna izango da domeka arratsaldean.

gu. Baina gurasoak ere gustora egoten dira. Azken batean guztiok bizi izan dugu haurtzaroa eta eurentzat ere polita izaten da honelako ikuskizun batean murgiltzea. Gure azken diskoko abestiak ere eskeintzen ditugu eta guztia modu errezean ulertzekoa da, gehiena begietatik sartzen da gainera.

- Karnabalak izanda, giro berezia izango da domekan...

- Guretzat karnabalak ia urte osoan dira baina giro berezia izaten da bai, eta umeak protagonistago sentitzeko ondo datoz fetxa hauek, mozorroarekin gustora ibiltzen dira gehienak. Ea domekan giro polita izaten den...

- Bukatzeko, zergatik izaten dira pailazo hirukoteak gehienetan?

- Azkenaldian badirudi horrela tokatu dela baina ez dut beste arrazoi berezirik dagoenik hortarako. Hiru pertsonaiekin egia da istorio bat lantzeko aukera gehiago dagoela, izaera ezberdineko hiru pertsonaiak landuz. Baina kasualitatea ere izan daiteke.

ZAPATUA

16:30: Plazan, haurrentzako jolasak Xipizaroren eskutik.

19:00: Udal Txistulari Bandak eta Kobok dultzaineroek alaitutako buruhaundi eta erraldoien kalejira.

19:30: Xamatx dantzataldearen kalejira eta Luzaideko dantzen agerpena.

23:00: Mal de ojo eta Los Moratxos taldeekin dantzaldia.

DOMEKA

12:30: Wonder Brass Quintet taldearen emanaldia Simon Arrieta plazan.

18:00: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoaren ikuskizuna Frontoian.

19:30: Tirri-Tarra fanfarrearen kalejira eta ikuskizuna Plazan.

MARTITZENA

16:00: Musika Eskolako txarangaren animazioa eta kalejira.

17:00: Zirko ttipiaren ekitaldia haurrentzat Plazan.

18:30: Karaokea Plazan.

20:30: Sardinaren entierroa.

21:00: Dantzaldia Plazan Gozategi taldearekin. (Bedelkar dendarien elkarteak 25.000 pezetako afari merienda bat emango dio egunean zehar animazio gehien jartzen duen taldeari).

"Euskaldunen eta indioen arteko elkartasun jai izan nahi du ikuskizunak"

Poltronetako jauntxoak

Estatu Espainoleko espetxeetan preso dauden gure senideak gose greban dira eta bere ondorioak jasaten ari dira. Agian zuek ez zarete konturatzen horrek dakarkien kalteaz, baina gu bai. Astez aste, gure seme-alabek, neba-arrebak eta lagunak nola ahitzen ari diren ikusten dugu, beren gorpuzak ahulduz doaz eta ia ez dute indarrik izaten mintzatokietara hurbiltzeko. Zergatik hori guztia?. Eskatzen dihardutena ez da inolaz ere legearen aurkakoa!!

Jaunak, euskal presoak Euskal Herrian egon nahi dute, dagokien eskubidea izateaz gain, Euskal Herria delako beren jaioterria, beragatik borrokatu direlako eta borrokatzen jarraituko dutelako. Hau zuei bost axola, baina berekin egunero gaudenok garbi ikusten dugu zer egin nahi dieten, akatu!! Jaunak, paper bustian idatzitako hitzak horixe bera dira: alperrikako hitzak. Senide eta lagunei, horrek guztiak ez digu honezkerok ezertarako balio, ekintza nahi dugu!! Orain artean ez zaituztegu ezer egiten ikusi eta horregatik, ez garela geldituko esaten dizuegu. Gure seme-alabak maite ditugu eta beraz ez dugu ahazten gertatzen diren injustiziak zuen poltronetatik baimentzen dituzuela.

Euskal presoak Euskal Herrira orain!!

BERGARAKO SENIDEAK

Barkatu, zenbat?

Lehenik eta behin zorionak eman nahi nizkieke "San Martin" ikuskizuna posible egin duten guztiei. Denok ulertu dugu herri osoarentzat aberasgarri dela. Baina sarrera denon poltsikoetara egokituta al zegoen? Nire ustez ez. Suposatzen dut horrelako muntaia batek gastu haundiak izango dituela baina bidezkoa iruditzen al zaizue "sarrera" hori ordaintzea ikasle, gazte, langabetu eta jubilatuak?

Ez al duzue aintzakotzat hartu denon posibilitate ekonomikoak berdinak ez direla?

Uste dut bergarar guztiak kultura era berean gozatzeko eskubidea dugula.

22 URTEKO GAZTE BAT
 NAN: 16.299.270

Eskerrik asko guztioi

Bergarako Musika Eskola osatzen dugunok, idatzi honen bidez, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu bergarar guztioi eta bereziki "San Martinen estampa" ikuskizunean laguntzen izan zareten guztioi.

Hainbat eta hainbat izan zarete bai dirulaguntza emanaz, edo bitarteko materialak jarriaz edo borondate hutsez lana eginez, zeuen laguntza eskaini duzuen herritar, lan-tegi eta erakundeak. Horregatik, nahi genukeen bezala banan banan zuen lana eskerterik ez dugulako, komunikabide honen birtatez, emandako laguntza hori aitortu nahi dizuegu eta adierazi ziur gaudela laguntza hori guztiz onuragarria izango dela gure herrian kultura sustatzeko eta Bergarako Musika Eskolaren helburuak aurrera eramateko.

Azkenik, barkamenak eskatu nahi nizkieke ikuskizunaren antolaketan zehar okerren bat sortu diegun herritar guztiei.

BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

Tiira biraka

UNAI AZKARATE



**Realarekin
Valladolidera**

Aranzabal Lagunartekak Realak otsailaren 23an Valladoliden jokatu duen partidura joateko autobusa antolatu du. Pucela aldera joan nahi duena Lagunarteko edozein kiderekin jar daiteke harremanetan bidaiaren berri jakiteko.

Autopista

Eibar-Gasteiz autopistari buruzko panelak eta bideoa izango dira ikusgai otsailaren 14tik 23ra Kultur Etxeko erakusgela aretoan Leintz-Gatzaga/Landa proposamenaren aldeko batzordeak antolatuta. Bergaran autopistaren trazaketa nolakoa izango den erakusteko triptikoak ere banatuko dira.



Fatxadak eraberritzeko orduan, kontutan hartuko diren irizpideak arautuko dira.

Fatxaden konponketa arautuko duen ordenantza onartu da

Asteheneko Ez-Ohiko Plenoan, herriko fatxaden konponketa eta eraberritze lanen dirulaguntzak arautuko dituen ordenantzei hasierako onarpena eman zitzaien Udalbatza osatzen duten alderdi guztien oniritziarekin.

Laguntza horien bidez Bergarako Udalerrian kokatuta dauden eraikinen balio monumental, historiko, arkitektoniko eta estetikoak eraberritu, birgaitu eta babesteko jarduerak bultzatu nahi dira.

Lau maila bereiztu dira eraikinen konpontzeko orduan jaso daitezkeen

dirulaguntzak zehazteko.

Lehen mailan, garrantzia historiko-artistiko goreneko ondasun higiezinak sartuko lirateke. Bigarren mailan, historiko-artistitiko nabarmena dutenak; hirugarren maila batean, garrantzia historiko-artistikoa dutenak egongo litzateke eta laugarren eta azkenengo mailan interes historiko-artistikoko eraikinen katalogoan jasota ez dauden ondasun higiezinak.

Dirulaguntzak jasotzeko, eraikuntzetan 5 interbentzio mota hartzen dira kontutan. Garbiketari txikiak, pintaketak eta man-

tenimendu obrak egiteko 3.500 pta. metro karratuko, eta fatxada guztiak junteatzeagatik, material nobleak sartzeagatik edo zurajeak bateratzeagatik 7.500 pta. metro karratuko. Bestalde, teiletegalak aldatzeagatik edo zurajeak berritzeagatik 15.000 pta. metro karratuko jaso ahal izango dira. Elementu bitxiak, armarrak, moldurak e.a. garbitu eta kontsolidatzeko lanengatik, osterara, 25.000 pta metro karratuko. Laguntza haundienak elementu bitxiak berritzeagatik jaso ahal izango dira: 35.000 pta metro karratuko.

HILDAKOAK

- Lorenzo Garitano Lizarralde**
Urtarrilak 29, 76 urte.
- Julio Garcia Fernandez**
Urtarrilak 31, 94 urte.
- Tomas Agirre Ugalde**
Otsailak 2, 65 urte.
- Asuncion Sainz Iloro**
Otsailak 2, 80 urte.
- Jose Francisco Agirre Izurategi**
Otsailak 4, 38 urte.

JAIOTAKOAK

- Ander Gallastegi Beroiz**
Urtarrilak 26.
- Itxaso Goenaga Jauregi**
Urtarrilak 30.

Gracian

Bidekurutzeta, 6 Tfnoa: 76 10 25

usaindegia, mertzeria eta...

ihauterietarako

osagarriak!

Amodiozko gutunak

Bihar, zapatua, bilduko da Amodiozko Gutunen V. Berrigara Lehiaketako epai-mahaia, aurten aurkeztu diren 194 kartetatik onenak zeintzuk izan diren erabakitzeko. 27 bergararrek hartu dute parte bosgarren edizio honetan. Sari banaketa, datorren eguakitzean, San Balentin eguna, egingo da Zabalotegiko aretoan. Sarituek euren kartak irakurriko dituzte eta horrez gain, Musika Eskolako soka boskoteak, Aitzol Mujika kantariak eta Oihulari Klownek ere hartuko dute parte sari banaketa ekitaldian.

Atun latak Saharar Herriari

Algerian erbesteratuta dauden sahararrei atun latak bidaltzeko kanpaina hil honen 20an amaituko da. Interesa dutenek, 250-300 gramoko atun latak laga ditzakete Udaltzaingoan, Eroski Consumen edo Eroslen.

Igerilekuak itxita

Urteko garbiketa egiteko piszinak itxi egingo dituzte datorren astelehenean, eta hurrengo astelehenera arte, hilak 17, ez dira zabalduko.

Sukaldaritza ikastaroa

Udaleko Ongizate Zerbitzuak, emakumeei zuzendutako sukaldaritza ikastaroa entolatu du. Ikastaroa otsailaren 17an hasi eta maiatzaren 30era arte izango da. Astelehen eta asteazkenetan arratsaldeko 3:30etatik 5:30etara bitartean izango da. Prezioa, 800 pezetakoa da eta izena emateko epea otsailaren 13an amaituko da Udaleko Ongizate zerbitzuan.



Udaleko LABeko enpresa komitekoek ostiralean egin zuten enkartelada.

Presoen aldeko enkartelada Udaleko enpresa komitekoek

Mikel Askasibar lankidea gose greban dagoela eta

Mikel Askasibar eta Iñaki Arenaza presoak gose greban dirautela eta, enkarteladak izan ziren astean zehar Bergaran. Ostiralean, Udaleko LABeko langileek antolatuta 25 bat langile bildu ziren Udaletxe aurrean Mikel Askasibar lankideari elkartasuna adierazi eta laguntza eskaintzeko.

San Martin plazan bildutako langileek bost puntutako idazki bat banatu zuten. Bertan, besteak beste, sakabanatze politikari amaiera ematea eskatzen zen, "legez kontrakoa delako eta presoen familia-rrerentzat zigor erantsi bat delako". Bestalde, nahi duten presoak Euskal Herrira ekartzea eta "indarrean dagoen legea betetzea eta oinarriko eskubideak errespetatzea" eska-

tu zuten Mikel Askasibarren lankideek. Azkenik, Udaleko ordezkari politikoei "zilegizko eskakizun hauek betetzeko" neurri politikoak hartzea eskatzen zitzaizen idazkian.

Udaleko enpresa komitekoek, asteazkenean beste enkartelada bat egin zuten plazan. Zapatu gauean, bestalde, Senideak-ek antolatutako enkartelada egin zen frontoi aurrean.

Mikel Askasibar Herrera de la Manchako espetxean dago eta Iñaki Arenaza, berriz, Alcalá Mecon. Presoak, euren eskubideak aldarrikatzeko txandaka egiten ari diren gose greba dela eta, urtarrilaren 25ean ekin zioten. Egun hauetan haibat ekitaldi antolatu dira herrian presoak Euskal Herrira eskatzeko.

MUJIKA



UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34

Txorimalo lehiaketako oinarriak kaleratu ditu jardunek

Izena emateko epea martxoaren 19an bukatuko da

Jarduneko Gazte Taldeak Txorimalo Lehiaketako beste edizio bat konbokatu du. Lehiaketara aurkezten diren txorimaloak ohizkoa den bezala Erramu Zapatuko ferian, martxoaren 22an, izango dira ikusgai goizeko 11etatik aurrera Iburgarai kalean. Sariak ordubatean toki berean banatuko dira.

Lehiaketan nahi duen edonork parte hartu dezake, taldeka zein bakarka; taldeka izanez gero, gehienez 8 partaide izan beharko dira talde bakoitzeko. Izena ematerakoan egilearen izena edo taldean egina bada taldearen erantzulearena adieraziko da. Edozein material erabili ahal izango da, baina txorimalo bakoitzak ardatz bat eramán beharko du, lurrean tinko egon dadin.

Hiru talde bereiztuko dira: 14 urtetik beherakoak, 15 urtetik 60ra artekoak eta 60 urtetik gorakoak. Sariak, berriz, taldeen arabera, honako hauek izango dira: 14 urtetik beherakoen mailan, egun bateko bidaia txorimalorik onenarentzat. Beste bi mailetan, 15.000 pezeta irabazlearentzat eta 10.000 bigarren geratzen denarentzat. Txorimaloarekin batera, esaldi edo eslogan bat asmatu beharko dute parte hartzaileek eta esaldi onenarentzat 10.000 pezetako sari berezia izango da dirutan edo materialean.

Lehiaketan parte hartzeko izenematea Jardunen, Gartzela Zaharrean, edo 76 36 61 telefonora deituz, egin beharko da martxoaren 19a baino lehen.

Nesken futbito txapelketa

Emakumezkoen futbito txapelketa antolatzeko bilera egingo da hilaren 22an arratsaldeko 7etan Kultur Etxean. Txapelketan parte hartzeko izena eman behar da Nahikari eta Oilagorra tabernetan.

Taldearen izena, jokalarien zerrenda eta delegatua nor den ipini beharko da. Talde bakoitzeko 3 federatuk jokatu ahal izango dute.

Bideo ikastaroa

Kultur Etxeko Islada bideogelak argiztapen ikastaroa antolatuko du martxoaren 3tik 14ra bitartean. 40 ordu emango dira arratsaldez, astelēhenetik ostiralera. Matrikulak 15.000 pezeta balio du eta izena emateko Kultur Etxera hurbildu behar da otsailaren 26a baino lehen. Alde teorikoa eta praktikoa landuko dira. Ikastaro amaieran ETBko plato bat bisitatzeko irteera antolatuko da.

Korrika Kulturala

Korrika Kulturalari hasiera emateko "Sagardotegian euskaraz" jaia antolatuko du AEKk otsailaren 22an Astigarrako sagardotegi batean. Euskal produktuen azoka, hankapaluak, trikitixa eta Gozategi taldearekin erromeria izango dira besteak beste. Bertara joateko autobusa antolatuko da eta izena-emateko 76 05 18 telefonora deitu behar da otsailaren 14a baino lehen.

Ziklismo lizentziak

Aurtengo denboraldirako txirringularitza lizentziak berriztu edo berriak atera nahi dituztenek, ostegunetan iluntzeko 8etatik 9etara Lokatzaren lokaletik pasa daitezke.



Ikusmin handia sortzen du Erramu Zapatuko txorimalo lehiaketak.



**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

Osasuna

Txakur ileapaindegia

- Jendea oraindik ez da ohitu txakurren pelukeriak daudela entzutera...

- Askotan pentsatzen da txakurra ileapaindegira eramateko arrazoi nagusia estetikoak dela, hori txakurren lehiaketetan ikus dezakegu. Baina horrez gain badaude beste arrazoi garrantzitsu batzuk ere. Askotan txakurrek parasitoak (kaparra, arkakusoak..., etab.) izan ditzakete eta tratatzea askoz errezagoa izango da ilea motza eta korapilo gabea bada. Kasu bera gertatzen da txakurrek onddoak izatean. Bestalde, zenbait pertsonak arraza nordikoko txakurrak (iletsuak) izaten dituzte eta udan txakur hauek sekulako beroa jasaten dute. Ilea moztea mesedegarria izango zaie eta bestalde, askotan gertatzen da egun euritsuetan txakurra busti eta etxea zikintzea. Ilea motza izanda arazoa konpondu dezakegu. Azkenik, ilean izugarrizko korapiloak sortzen zaizkienean, askotan hauek kentzeko modu bakarra tresna be-

rezien erabilera izaten da.

- Zein zerbitzu eskeintzen dira txakur ileapaindegietan?

- Ilea mozketak (arrazaren patroiak jarraituz), txakurraren bainua (txakurraren desparasitazioa lortzeko), zepilatua (korapiloak kentzeko), belarrien garbiketa eta, azkenik, atzazkal mozketak. Prezioa txakur bakoitzak



AMAIA UNAMUNO

(Albaitaria)

ematen duen lanaren araberakoa izaten da baina normalean 4.000 eta 6.000 pezeta bitartekoa izaten da.

- Zein frekuentziarekin eramaten da txakurra ileapaindegira?

- Jendeak, normalean,

uda aurretik eramaten du txakurra ileapaindegira, apiril edo maiatz aldera, txakurrak udan ilea motza izan dezan. Horrela parasitoengandik edo beroarengandik defenditzeko gai izango da txakurra. Askok udazken aldera bigarren bisita bat egiten dute negurako ilea txukuntzeko asmoz. Baina honetan ez da ilea urrekoan bezain beste mozten; konponketatxo bat egiten da.

- Arrazen artean ere ezberdintasunak izango dira. Zeintzu dira ileapaindegira joateko beharrik haundiena dutenak?

- Normalean cocker txakurrak, kanitxeak, artzai txakurrak, bobtailak eta horrelakoak dira beharrik handiena dutenak. Arraza definitu gabeko txakur asko pasatzen dira txakur ileapaindegitik eta edozein arrazako txakurrei zuzenduta dago. Azken batean, txakur guztiei etorriko zaie ondo noizean behin ilea moztea. Garbitasun eta estetika aldetik ere igarriko dute aldea.

- Ileapaindegi zerbitzua txakurrentzako da bakarrik?

- Ez, batzuetan, onddo arazoak edo beste konplikazioaren bat izaten dutenean katuak ere ekartzen ditu jendeak eta berdin hartzen ditugu.

“Parasitoak, onddoak eta beste hainbat arazo prebenitzeko mozten zaie ilea txakurrei”



Estetikoaz gain, badaude beste arrazoi batzuk txakurrei ilea mozteko.

Zure
konfidantzako
denda



Tfnokak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Nora Palmitano

Argentinar bat Bergaran euskara irakasten

1961ean Argentinako La Plata hirian jaioa, Nora Palmitanok bost urte daramatza gure artean. Etorri bezain pronto euskara ikasteari ekin zion eta handik urte t'erdira EGA titulua eta hezkuntzarako bigarren perfila atera zituen. Gaur egun euskarazko klaseak ematen ditu Bergarako AEK eskalategian eta horrez gain Gipuzkoako AEKko didaktika arduradunetako bat da.

- Nolatan argentinar bat Bergaran euskara irakasten?

- Bergarara etorri baino lehen zazpi urte egin nituen Madrilén. Instituto de Cooperación Iberoamericana delakoaren bika bati esker Pedagogia doktoradutza egitera etorri nintzen. Doktoradutza egin ondoren tesia amaitu gabe utzi nuen eta Madriléko bi ikastetxetan izan nintzen lanean. Baina oso lanpetuta ibiltzen nintzen eta Madril uztea erabaki nuen. Ezinezkoa zitzaidan bizitza lasaia egitea eta Granadako herri bate-



Nora Palmitano orain bost urte etorri zen Bergarara eta gaur egun AEK'n klaseak ematen ditu.

ra joateko erabakia hartu nuen. Eta, ia erdi instalatuta nongoen, hemen go mutil bat ezagutu nuen eta hona etortzea erabaki nuen.

- **Eta berehala euskara ikasten hasi zinen...**

- 92ko irailean etorri

nintzen eta urte t'erdian langabezia kobratzeko nuenez, euskara ikastea erabaki nuen. Mutilaren bizitza eta ingurunea eskaldunak izanik euskara ikastea lojikoena zela sentitu nuen.


- **Nola ikasi zenuen**

euskara? Gogorra egin zitzaizun?

- Etorri berria izanda jendeak uste baino errezagoa dela esango nuke. Euskaraz bizitzeko erabakia hartu nuen. Gaztelera albo batera laga eta egun guztian euskarazko arike-

“Hona etorri nintzenean, gaztelera albora laga eta euskaraz bizitzea erabaki nuen”

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
 ☎ 76 12 31



JAUJA KIROLAK

Irizar, 2
 ☎ 76 14 95

Aldoka
Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

tak egiten saiatzen nintzen. Goizean esnatzerakoan irratia pitztuz, Udal Euskaltegiko klaseetara joanez, kalean euskaraz entzuten nuen guztiari adi egonez... Horrela ibiltzen nintzen. Udal Euskaltegian 2. urratsera arte egon nintzen eta 3.etik 7.era Zornotzako barnetegian, egunero joan-etorria eginez eta bidean Maritxu berritsu irratsaioa entzunez. Piskat surrealista ematen du baina oso irratsaio ona da hori euskaldun berriontzat. Uda ostean berriro Udal Euskaltegian 7. eta 9. urratsak egin nituen (8.a ez nuen egin), UNEDen EGA ikastaroa egin nuen urritik maiatzera bitartean eta ekainean EGA eta Hezkuntzako 2. perfila atera nituen.

- Eta nola sortu zitzaizun AEKn lan egiteko aukera?

- Euskaltegia zabaltze ar zegoenean nire burua eskeintzera joan nintzen, batez ere laguntza didaktikoa emateko. Hurrengo ikasturtean euskaltegian didaktikari (klaseen programaketa edo metodologia berrien ardura izaten duena) figura martxan jarri zenean ni aukeratu ninduten. Glotodidaktika ikastaroa egin nuen Udal Euskal Unibertsitatean eta han jarri nuen frogan nire euskara maila. Euskalduntze eta Alfabetatzerako Diplomaturan matrikulatu nintzen eta



Euskal Herrira etorri baino lehen Madrilan lau urtez izan zen.

bukatze ar dut. Eta orain hor nabil, klaseak ematen eta didaktikari lanak eginez.

- Euskara ikasteko izan duzun borondatea ikusirik, zer esango zenieke oraindik euskara ikasi ez dutenei?

- Ikastea posible dela, beste hizkuntzekin gertatzen den moduan. Baina oso inportantea da bakoitzak bere bidea egitea euskara ikasteko. Ez dago metodo bakarra. Hizkun-

tza bat ikasteko forma mordo bat dago eta bakoitzak ikusiko du zein metodo zaion baliogarria. Batzuentzat klaseak izango dira, beste batzuentzat ingurune euskaldunak bilatzea... Norberaren tresna eta erritmo egokiak aurkitu behar dira, besterik ez. Niretzat oso garrantzitsua izan zen laguntzaile batzuk izatea, hasieratik euskaraz hitz egiten zidan jendeak. Nik gaztelaniaz egiten nuen

eta beraiek, pazientzia haundiz, euskaraz. Eta Bergaran jende asko dago honetarako prest. Hemen euskara ikasteak mundu berri bat zabaltzen dizu eta horrek milaka esperientzia berri biziitzea suposatzen du. Eta euskara ikasteko azken helburua beti da eremu batean euskara erabiltzea, hori ere kontutan izan behar da. Dena den, euskaldunberri moduan, askotan lotsatu egiten naiz EGA azkar ateratzeagatik, ez dut inoren eredu izan nahi eta nik ere ordu pilo bat sartu behar izan nituen euskaraz berba egin arte. Gehiengoak badu ikasteko gogoia baina ez du pausurik ematen.

- Argentinara bueltatuz, han euskaldun jatorria duen jende asko dago...


- Bai, egia da arbaso euskaldunak dituzten argentinarrak asko dagoela baina nik ez nituen ezagutzen ona etorri aurretik. Ezin dizut esan nolakoak diren hango euskaldunak.

- Eta nola ikusten gaituzu gu?

- Lotsatiak, dena barrurako gordetzen dute euskaldunek. Era berean, oso alaiak dira, kriston

“Oso inportantea da bakoitzak bere bidea egitea euskara ikasteko. Norberaren tresna eta erritmo egokiak aurkitu behar dira”

ONGI-ETORRI



JATETXEA & TABERNA

Berezitasunak: haragi eta arraina txingarretan
Bustinzuri, 6 Antzuola Tl. 76 63 49

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi ☎ 76 15 09

Deco-Textil

ZANGITU

**Etzerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.**

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

alaitasuna daukate. Hona etorri nintzenez argi zegoen hemen beste kultura bat zegoela, beste nazio bat zela hau. Kale mailan, herri mailan ikusten dudana mobilizazioa (eta ez bakarrik politika mailan) ez dut inon ikusi. Helburu zehatz batekin (Kilometroak, Egunkari festa, etab.), hemengo nortasunarekin zerikusia duten gauzekin, jendeak azaltzen duen jarrera berria da niretzat eta, era berean, gazteengan pasotismo askoz gutxiago ikusi dut hemen kanpoan baino. Motibazio gehiago dituzte hemengo gazteek gauzak egiteko: irrati libreak, ikastaroak, musika taldeak..., etabar. Herri guztietan gauzak egiten dituzten gazteak daude. Gehien gustatzen zaidana? Trikitia entzun eta dantzan hasteko jendeak duen erretasuna, horrek inbidia ematen dit. Eta gutxien, sentimenduk adierazteko erretasun falta. Hemengo egoera? Argentinan Unibertsitate-
ra diktadura garaian joan nintzen eta han politikako gaiak alde batera utzi beharra zegoen. Hemen ere berehala konturatu nintzen klaseetan gauza batzuk ezin zirela aipatu.

- Euskal kultura aipatu duzu. Zer nabarmenduko zenuke?

- Bertsolaritza (nahiz eta euskaldunberrirentzat nekeza izan), dantzak, panderoa (ikastaro bat

egiteko asmotan nago)... Jendeak lurra eta kulturarekiko hemen duen lotura ez nuen ezagutzen, berria da niretzat. Igartzen da hemen baino hobeto ez zaretela inon egongo eta sentimendu hori ez dut beste inon ikusi. Beste toki batzuetan izan naiz hona etorri aurretik eta nahiz eta beti ondo integratuta egon, ez dut lortu lurra eta kulturarenganako lotura hori izaterik. Ez dakit Euskal Herriarekin lortuko dudana...

- Argentinaren faltarik sumatzen duzu?

- Ez. Nire lagunak, nire jendea bai, baina Argentina ez. Pentsa, demokrazia 6 urtetan bakarrik ezagutu nuen nik Argentinan, zelan identifikatuko naiz ba hango histo-

riarekin? Gaztaro osoan diktadura gogorra ezagutu nuen eta beraz ez dut hura faltan botatzen. Gainera, orain hara joaten naizen bakoitzean Argentina azkenera heldu dela pentsatzen dut baina hurrengoan oraindik beherrago ikusten dut. Ematen du amaierarik ez duela. Gizartea desintegraturik dago, pobrezia, gosea, korrupzioa maila eta arlo guztietan... Baina jendeak aurrera egiten du.

- Irakaskuntzan lanean jarraitzeko asmoa daukazu?

- Proiektu asko daukagu esku artean eta epe luzera nire burua irakaskuntzan ikusten dut.

- Euskara bultzatze-ko proiekturik?

- Euskal kulturaren in-

guruan ekintza ezberdinak daude Bergaran eta denak dira baliogarriak baina herritarrek jasotzen duten mezua, koherentea al da? Bada garaia mezu koherente eta bateratu bat gizarteratzeko. Momentu onean gaude bide hori hartzeko. Horrek suposatuko du talde edo egitasmo bakoitzak duen bidea jarraitzea baina, era berean, helburu amankomunak topatzea guztion artean aurrera egiteko. Adibidez matrikula garaian talde guztiak batera plazaratu eta jendeari aukera ezberdinak azaltzeko aukera daukagu. Laster Korrika dator eta horrek euskararentzat izugarriko garrantzia dauka. Horretaz ere guztiak kontziente izan behar gara.



Norak euskal kulturaren inguruan lanean ari diren taldeen arteko kolaborazio gehiago botatzen du faltan.

*Bolintxon,
orain arteko markez
gain, aurrerantzean:*



BOLINTXO

KIROLAK

Ibargarai, 10 Tlf.: 76 38 32

Valen Moñux

San Martinen Estanpako eszena zuzendaria

Egindako lanagatik erabat jota bukatu badu ere, ikuskizuna jasoko duen bideoa editatu arte bere lana amaituko ez dela aitortu digu. Muntaiarekin lortutako arrakastak, ordea, oso zoriontsu egin du.

- Zein izan da emanaldirik onena?

- Lehenengo emanaldia, ostiralekoa, oso gogorra izan zen. Ez genuen uste hain luze joango zenik, ordura arte espektakulo osoa entsaiatu barik baikeneukan. Hasieran uste baino luzeago irten zenez, hurrengo emanaldietarako moztu beharra izan genuen. Gauzak zuzentzeko oso aproposa izan zen ostiraleko emanaldia. Zapatu arratsaldekoa, ostera, oso baliagarria, orduan ikusi baikenuen benetan espektakuloa nolako zen, soinuaren aldetik, irudien aldetik, erritmoaren aldetik... Nik ezer esan barik, guztia pentsatu bezala irten zen. Zapatu gauekoa, estreinua izan zen eta emozio hori nabaritu genuen guztiok. Domekako berezia izan zen, ETBko kamarak zeudelako eta bertan jasotzen zena historiara pasatuko zela bagenekielako. Telebistak irudiak hartu izanak aukera emango die espektakuloan parte hartu zutenei, espektakuloa oso osorik ikusteko eta hau oso inportantea da. Teknikoki azkenengo emanaldia izan zen onena.



San Martinen Estanpako protagonista nagusiak.

- Noiz emango da ETBtik?

- Ez dakigu, orain post-produkzioa egin behar baita. ETBk domekan grabatutako irudien masterra emango digu eta beste irudi batzuk gehituko dizkiogu, protagonistei egindako elkarrizketak, seilu erakusketako irudiak..., bideoa kaleratzeko. Bideoa 2.000 pezetan salgai jarriko da eta hiru ordu t'erdi inguru iraungo du.

- Aurrez pentsatuta bezala irten al da guztia?

- Bai. Entsausiak hasi aurretik eszenatokia nola izan behar zen diseinatu eta maketa bat egin genuen. Hori oso balaigarria izan zaigu entsaiatzerako orduan. Bestalde, publikoaren erantzuna guk pentsatutakoa baino askoz ere hobea izan da. Ez genuen espero horrelako ikusminik sortuko zenik.

“Publikoaren erantzuna guk pentsatutakoa baino askoz hobea izan da”

- Lanari aurre egin ezinik egon zarete?

- Azkenengo astea oso gogorra izan da, baina zenbat eta lan gehiago, laguntzaile gehiago izan dugu. Azkenengo bi asteetan Udaleko brigada, aingeru zaindari bezalako izan da guretzat. Denetik egin dute brigadakoek, baita regidore lanak ere. Musika Eskolako gurasoak ere lan handia egin dute azken momentuan. Jendeak oso harrera ona eta berezia izan du, bai ikuskizunean parte hartu dutenek, entsaiuetan, emanaldi egunetan...; eta baita izkutuko lanetan aritu direnek.

- Ikuskizuneko ze pasarte da gehien gustatu zaizuna?

- Soziedadeko irudierekin ezustekoa hartu nuen. Horretan oso lan polita egin dute Kukuma-koek. Elkartekoa ikuskizunaren haria jarraitzeko antzerki errekurtsu bat zen, baina irudiari ez nion hasiera batean garrantzia haundirik eman eta ikusi ondoren oso sorpresa atsegina hartu dut. Estetikoki oso polita geratu da.

- Hartutako lanak merezi izan al du?

- Nire lana ez zen domekan amaitu. Zorionak eman dizkidate, baina bideoa modurik onenean ateratzeko ahaleginak egitea da orain nire lana. Zentzu haundirik ez zuen hiru egunetan emateko horrelako ikuskizun erraldoia antolatzea, dokumentua gerorako jasota geratzen ez bazen. Horregatik, emaitza duina baldin bada, orduan gustora sentituko gara eta egindako lanak benetan merezi izan duela konturatu gara.

San Martinen Estanparen antolatzaileek eta,



Bergarako Udala

batez ere, Musika Eskolak,

eskerrak






eman nahi dizkie Bergarako herriaren ikuskizuna burutzea ahalbideratu duten denei:



Gipuzkoako Foru Diputazioa




Eusko Jaurlaritza



Garbil•Imprespal•K3•Akort•Aperribay Industriak•Deba Garaia
Inmueble eta Finantza Agentzia•Guipuzcoana paketeen garraio eta
banaketa•Ugarla Industriak•Artazi Oihal denda•Ola Tailerrak•Gracian
Usaindegia•Telaetxe•Igarza Lentzeria eta Osagarriak•Igaro
Usaindegia•Bergaraprint•Disdira•Amaia•Egiluz Usaindegia•Orraski
Ileapaindegia•Alga Lurindegia•All Make Up Makilaje Akademia•Iletxo
Ileapaindegia•Goiara Lurrindegia•Miguel Altuna Institutua•Mujika
Industriak•Amaia Labaien bideo egilea

Eska ezazu Musika Eskolan
San Martinen Estaparen
bideo ofiziala ☎ 76 57 80.



4.000 lagunek ikusi zuten





ARGAZKIAK:
JABIER AREITIO

Lau emanaldiak kontutan hartuta, ia 4.000 lagunek ikusi dute San Martinen Estanpa.

2.200 sarrera saldu eta ia 4 millioi t'erdi pezeta batu ziren.

ETBk grabatu zuen domekako emanaldia eta oraindik zehazteke badago noiz izango den, telebistatik emango da. 6 kamara erabili ziren irudiak hartzeko.

Euskal Telebistak hartutako irudiekin eta beste batzuekin bideoa kaleratuko du Musika Eskolak. 2.000 pezetan jarriko da salgai.

Argi eta soinuez gain, efeko berezi ugari erabili ziren. 6.000 watio soinu eta 200.000 watio argi erabili ziren.

San Martinen zeruratzeko motor mekaniko bat eta bi eskalatzaille.

Sarrerekin eta bidecaren salmentarekin jasotzen den dirua, Musika Eskolan egin beharreko konponketei aurre egiteko erabiliko da.



San Balentin egunean

Alga

IBARGARAI, 10



Etxeberria

BIDEKURUTZETA, 16



Jauja
IRIZAR, 1

Kanela

ESPALOIA, 10



Jolas


BARRENKALEA, 27



Santos
MASTERREKA, 2

Lislore

BARRENKALEA, 28



Zubikua Gizon

BARRENKALEA, 24



Mujika
SAN MARTIN PLAZA

Nerea

SIMON ARRIETA, 1



Zaiazko

TELEFORO ARANZADI



Zubikua Emakume
BARRENKALEA, 24

Maite zaitut esateko 12 aukera.

Alfredo eta Miguel Gonzalez

Musika originalaren egilea eta moldaketaren arduraduna

Alfredo Gonzalez Chirlaque izan da San Martinen Estanpako musika zuzendaria. Orkestra zuzendu eta estanpen musikaren egokipena egin du ikuskizunerako. Bere aita, Miguel Gonzalez Bastida, musika originalaren egilea, oso hunkituta geratu da ikuskizunarekin. Biekin izan gara.

- Alfredo, ikuskizunaren ze balorazio egingo zenuke?

- Guztia ondo irten dela uste dut. Hiru orduko muntaia zen eta hasieran luzeegi irtengo zen beldur ginen. Uste dut jendeari aspergarria ez zaiola egin. Bestalde, konklusio bat atera dut: jendea prest dagoela edozertarako lan egiteko. Jende asko inplikatu da lan honetan eta guztiak prest agertu dira hasiera hasieratik. Musikari dagokionez, gauzak ondo irten direla uste dut. Aste honetan bertan Donostiako Kontserbatorioko irakasle batzuk, musiko profesionalak, deitu didate zorionak emateko eta harrিতuta geratu dira erakutsitako mailarekin eta kalitatearekin. Aitak konposatutako obrak ez zituzten ezagutzen eta oso inpresio ona eraman zuten. Ez zuten uste Bergaran horrelako mailarik zegoenik. Autoreen elkarteak ere etorri ziren eta hauek ere harrিতuta geratu ziren.

- Eta Miguel, zuri zer iruditu zitzaizun?



Miguel Gonzalez Bastida, partituraren egilea, hunkituta geratu zen.

- Egia esango dizut: oso hunkigarria izan zen, benetan zoragarria. Burutik pasatu ere zitzaidan egin horrelakorik egin zitekeenik. Guztiak afizionatuak ziren eta profesionalak ez lukete hobe egingo. Eszena batzuk artistikoki oso aberatsak ziren, literatura hutsa. Nire musika, martirioaren zatia, dramatismo hura, oso ederra izan zen. "Estabat mater" bai, dramatiko

da, baina eszena ikusi eta gero, oso hunkituta geratu nintzen, horregatik diot profesionalak ez luketela hobe egingo, ezta pentsatu ere. Guztia egon zen ondo, banda, orkestra, koroak... Orkestan eta bandan dabilzanak oso gazteak dira eta ikasten jarraitzen badute oso maila ona lortuko da. Bandak urte onak ezagutu ditu, baina gaur egun duen mailan ez da sekula egon.

"Donostiako kontserbatorioko irakasleak harrিতuta geratu ziren hemen ikusitakoarekin"

- Orain dela 40 urte estreinatu ziren Euskal Estanpekin zerikusirik?

- Hura ere ondo egon zen, baina gaur egun bi-tarteko gehiago dago eta ikuskizunak ederragoak dira. Orduan Donostiako Kamara Orkestra etorri zen eta kanpotik hainbat aktore ekarri ziren.

- Alfredo, orain arte egindakoetatik zeinek geratuko zinateke?

- La Mision, El Rey Leon eta Miserableak oso ezberdinak dira bata besterekin. San Martzialgo Estanpa eta San Martinen Estanpa antzerakoak dira, hura medio gutxiagorekin egin bazen ere. Orain arte egin ditugun muntaiak oso ezberdinak izan dira eta hori da nik baloratzen dudana, jendea aspertu ez dadin gauza ezberdinak eskaintzea oso inportantea baita.

- Aurrera begira zer?

- Orkestra Sinfonikoarentzat lan bat prestatzen nabil. Azkenaldian alde batera lagata izan dut eta horri helduko diot. Gabonetarako edo prestatzea espero dut.

Bestalde, azpimarratu nahi nuke ikuskizunearn parte hartu duten guztiek, musiko, aktore, langile eta abarrek egindako lana, eta baita Musika Eskolako zuzendaritza batzordekoek, guztia aurrera ateratzeko egindakoa. Musika Eskolako irakasleek ere lan handia egin dute hurrei abestiak erakusten. Eta gainera denek musutruk lan egin dute.

Bergarako zein tokitan bizitzea gustatuko litzaizuke? Eta Bergaratik kanpo?



Luis Pumar

Bizi naizen tokian, Zabalotegiko dorrean. Behelainoa dagoenean, han eguzkia daukagu. Bergaratik kanpo? Dirua edukita, Benidormen. Galizian ere etxea erosiko nuke.



Jose Mari Mujika

Frontoian gustora bizi naiz. Poligono aldea ere gustatzen zait trankila delako. Bergaratik kanpo inguruko kostara joango nintzateke bizitzera.



Amaia Familiar

Bizi naizen lekuan, zentroan, leku denetatik gertu dagoelako. Eta hemendik kanpo Donostian erosiko nuke etxea gustora.



Inma Gallastegi

Poligonoan, bizi naizen tokian. Pasiatzeko toki onak daude eta zentrotik gertu dago. Bergaratik kanpo? Gasteizen edo kostan, Lekeition adibidez.



Covadonga Diez

Poligonoa izango da beharbada lekurik onena. Ni Bolun bizi naiz baina Poligonoa gehiago gustatzen zait. Bergaratik kanpo, kostan, Zarautzen igual.



Alberto Contreras

Dirua edukita, Plazan edo Frontoian egiten ari diren etxeetan bizitzea gustatuko litzaizuke. Baserri batean ere bai... Hemendik kanpo? Donostian beharbada.

Usoa Pub

☎ 76 38 57
Irala, 1

LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxes: 76 20 29

Goierri

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

MAHER

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75



Galaxien Gerra II

George Lucasen klasikoa botatzen ari zaizkigu egunotan, oraingoan formato digitalean. Eta bi bandotan ageri zaizkigu protagonistak, bakoitza bere aldetik, berarekin joan gaitezen eske.

Bando bata, gobernuko trintxerakoa eta Telefonikako plataforma digitalekoa. Talde honetan daude, besteak beste, "Kriminaren sindikatu" zaharreko ordezkari nabarmenetako pare bat (Antonio Herrero eta Pedro J. Ramirez), sekundario ospetsu bat (Sanchez Drago), gero eta izen txikiagoa duen aristokrata bat (Jose Luis de Vilallonga) edota gero eta izen haundiagoa duen mediokrata bat (Miguel Angel Rodriguez).

Beste bandoan, Polanco eta Asensio, Asensio eta Polanco, orain dela hilabete etsai amorratu zirenak eta orain, Canal Satellite Digitalari esker, adiskide min bihurtu zaizkigunak. Euren atzean dituzte komunikabideetako profesionalen osatutako legio bat (Juan Luis Cebrian, Manuel Campo Vidal besteak beste) garai batean prestigio eta influentzia haundikoak izandakoak eta gaur beren goranahi enpresarialengatik edo beren untzietako patroiei nahita edo nahigabe izandako atxekimenduagatik behera etorri direnak.

Eta espektakularekin latsa edo hozkirria sentitzen duenak, aukera bat baino gehiago ez dauka: ezertan ez dagokion borroka albo batera utzi eta informazio ez-interesatuaren eta interesgarri izan litekeen telebista apurraren (informatu, hezi eta entretenitzen duen telebistaren) planetara itzultzea. Ez dezagula, behintzat, okerreko bandoa aukeratu.

Emilio VINUESA



San Martinen Estanpa

Pasa den astean aukera izan genuen ekitaldi berezi bat ikusteko. Hainbeste komentario entzun ondoren, iritsi zen eguna. Ez ohizko bezala aurretik salgai jarri zituzten sarrerak, oraingo honetan gainera, numeratuak. Ederki asko, lagunekin geratu eta inongo arazorik gabe ni neu arduratu nintzen astelehenean hartzen. Guztira bost sarrera, ados, egun berean, seirak aldera abiatu nintzen frontoira, bide batez enkargu batzuk egiteko asmoz... Hura izan zen sorpresa, harridura... sekulako ilara jadanik!. Beno ba, esan nion neure buruari, eztaukat besterik gertatzea baino. Erlojua aurrera zihola konturatuz eta ez genuela urrats bat ere aurreratu, hasi ziren gure arteko zurrumurruak: "Aizue badirudi plano batekin dabiltzala lehiatilan, beraz, hurbiltzen den bakoitzak hamar minutu gutxienez behar du tokia aukeratzeko". "Esan omen dute beste saio bat jarriko dutela". "Orain azkarrago doa, bigarren lehiatila zabaldu dute eta...". Kontuak kontu eta gauzak horrela, txanda harturik hasi zen gure mugimendua: etxera deitu, erreleboa eskatu: "Faborez, afaltzera noa eta ordu erdi barru bueltatuko naiz zu joateko, eta abar". Total bost ordu. Halere, hori guztia anekdota bihurtu da dagoeneko. Ez diot horrenbeste garrantzia ematen, azkenik lortu genituen sarrerak eta batez ere ikusteko aukera aparta izan genuen.

Benetan diñotsuet primeran pasatu genuela, disfrutatu, gozatu, emozionatu, zuekin batera kantatu... Hor nonbait umeen danborrada, desfilea, enkarteladak, sekulako disziplina. Txalagarria benetan. Eszenatokiarena, elkartearena, estanpa guzti guztiak zoragarriak. Eskerrikasko parte hartu duzuenoi ohitura zaharrak gogoratzeagatik, gure herriak duen kultur mamia berreskuratzegatik... Bai, bospasei ordu kolan igaro genuen eta zuek? zenbat ordu ekitaldi erraldoi hau aurrera eramateko? Zenbat buruhauste? Musikalariak handik mugitu ezinik eta ia ia ezer ikusi gabe. Txalo bero bat eta eskerrikasko, esker mila, mila esker.

Maite MOZOS

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

GORBEA

Miguel
Gimbert
Hernan

AROZTEGIA / EBANISTERIA

Zokalo, ate, tarima eta armairuen
kolokazioa eta
era guztietako arotzeria-lanak

Orain ARETXABALETAN,
Basabe Polig. A-2-5 T/F 79 15 71

ARREGUI, E.M.



AROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

ezpeleta
ostalaritza-ehunak

OSTALARITZA ETA EGOITZETARAKO MAHAI-ZAPI
ETA INDUSTRI-EHUNAK
SAN LORENZO, 1 TL 76 17 09

PANA DE ROKUA
TATETXEAL

Asteburuetan
bertako babak eta sabieskia

SALBADOR, 10 ELGETA Tlf., 76 82 73

■ **Kantari ugari
Santa Ageda
bezperan**

Ohiturari jarraituz, martitzenean, **Santa Ageda** bezperan, talde ugari kaleratu ziren goizetik kantuan.

Eguraldiak ere lagundu zuen eta azken urteetan baino jende gehiago ikus zitekeen kantuan.

Jubilatuen

abesbatza, **Aritzeta**, **Udal Euskaltegia**, **AEK**, eta **Jarduneko lagunak**, edota **Alai taldea** baserritar jantzita eta **ikastetxeetako haurrak**, kalez kale ibili ziren Santa Ageda eskean eta Santa Agedako koplak herriko txoko denetara heldu ziren... Talde guztiek maila altua erakutsi zuten eta ondorioz entzulego zabala izan zuten kaleetan.



■ **Ipuinen majia**

Aste honetan, **Udal Liburutegiak** antolatuta, **Pello Añorga** ipuin kontalariaren saioak izan dira Kultur Etxean, Angiozarren eta Osintxun. Herriko OHoko lehen eta bigarren mailako ikasleek primeran pasa dute Pello Añorgaren kontakizunekin. Añorgak bere pertsonaiei bizia ematen die benetan eta neska-mutilak, aho zabalik, txundituta geratzen dira euren gorabeherekin. Ipuin kontaketak irakurketa suspertzeko asmoz antolatu ditu Udal Liburutegiak.

 **DEBA GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

 **Maxim's**
☎ 76 20 61

**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**
EUXEBIO II
Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92



■ **San Martini buruzko erakusketa**

San Martinen martirioaren laugarren mendeurrenaren inguruko ospakizunekin jarraituz, domekara arte zabalik izango da **Udaletxeko Pleno aretoan**

Seilu eta Diru Bildumazaleen elkarteak San Martini eskeinitako erakusketa. Herriko bildumazaleek San Martinen eskulturak, koadroak, liburuak, seilu erlijiosoak, txanponak, martirioaren 3. mendeurrenako dokumentazioa, ustez San Martin jaio zen baserrian dagoen gurutzetako bat eta beste hainbat material bildu dute. Argazkian bildumazale talde bat joan zen zapatuko erakusketaren inaugurazioan.

Zertan dihardute ba?



Rikardo Azkargorta

38 urteko bergarar margolaria Beart Bergarako artisten elkarteko presidente izendatu zuten joan zen astean. Azkargortak Luis Laskurain orain arteko presidentea ordezkatu du elkartearen zuzendaritzan.

Laskurain elkarteko presidenteordea izango da, Pello Alberdik idazkari lanak beteko ditu eta Dani Laskurainek diruzain jarraituko du. *“Ea etapa berri bonetan jendea motibatzen den eta bebingoz guretako lokal bat lortzen dugun. Lokalarena ez da argitu eta oraingoz ez gara Martokuara joango”*, esan digu.

■ **Babarruneko kofradea**

Koldo Lasa

sukaldaria Tolosako Babarrun Kofradiako **ohorezko kofrade** izendatu zuten



domekan. Karnabalen atarian, Tolosaldeako produkturik preziatuenetakoa defendatzeko sortutako Kofradiak ohorezko kofradeak tronuratu zituen Tolosako Udaletxean. Koldo Lasarekin batera, Ainhoa Arteta sopranoak, Enrike Erentxun Euskadiko Txirrindulari Itzuliko zuzendariak, Juan Mari Mañeru SER irratiko kazetariak eta Iñaki Perurena harrijasotzaileak, babarrun lapiko batera eskua luzatuz, babarruna defendatzeko, kofradeen aurrean gutxienez behin landatzeko eta maitasunez prestatzeko konpromezua hartu zuten. Hori leialtasuna hori...

igok eta Txomin

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortozko... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA BERGARA
 ☎ 76 60 39 ☎ 76 19 98

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA

ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea

☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
 Leihoak, atek, manparak...

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
 Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Patxi Berraondo

1920. urtearen inguruan zabaldu zen Gisasola ferreteria. Patxi Berraondoren (49 urte) aitaren osaba batek, Emeterio Gisasola "Erratzu" k zabaldu zuen Biona pentsuak dagoen tokian eta gerra ostetik oraingo lokalean dago. Patxi 30 bat urte daramatza bertan lanean.

- Zer da gehien saltzen duzuen?
- Sukaldeko tresnak, etxeko ferreteria, elektrizitatea...
- Emakumeak ala gizonak etortzen dira gehiago?
- Emakumeak igual...
- Ferreteria izan ez balitz, zein denda zabalduko zenuke?
- Ez dut sekula pentsatu. Farmazia bat behar bada.
- Artetsua zara?
- Ez.
- Etxeko lanak egiten dituzu?
- Piskat bai...
- Etxeko lanik gorrotagarriena?
- Zapatak garbitzea.
- Sukaldari ona zara?
- Ez.
- Bedelkarren martxarekin gustora zaude?
- Bai.
- Bergaran komertzio mailan zerbait faltan?



“Karnabaletan pirata mozorrotuko naiz. San Balentin ospatzeko ohiturarik ez daukat, baina gaztetan amodiozko kartak idazten nituen. Intentzio txarreko txismorreok sutan jartzen naute”

- Zerbitzu aldetik parkingak, argiak, udaltzainak hain zorrotzak ez izatea multak jartzerakoan...
- **San Martinen estampa ikusten izan zinen?**
- Parte hartzeko nintzen baina sukarrak jota etxean geratu behar...
- **Hobby bat.**
- Futboleko jokatzeari eta tanborra jotzea.
- **Eta noiz jotzen duzu ba tanborra?**
- San Martinetan.
- **Futbolari bat?**
- Luis Enrique.
- **Zezeagari zer falta izan zitzaion txapeldun izateko?**
- Finalean pilota gehiegi huts egin zituen.
- **Mutikotan ikasle ona zinen?**
- Bai.
- **Ikasgaririk gustokoena?**
- Letrazkoak.
- **Mania bat?**
- Denda ireki eta ixteko puntualitatea.
- **Zerk jartzen zaitu sutan?**
- Batez ere intentzio txarreko txismorreok.
- **Karnabaletan mozorrotuko zara?**
- Bai, pirata jantziko naiz.
- **Eta San Balentin ospatuko duzu?**
- Ez.
- **Amodiozko gutunik idatzi duzu sekula?**
- Bai, gaztetan ez zegoen telefonorik...

Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

iletxo

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktorea, 7 BERGARA
☎ 76 53 15

Isabel Benito eta Aitziber Payrosen kontsulta.

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

Loditasun orokorra eta lokalizatua

Zelulitisa • Aknea

Tinkotasun eza • Zimurrak • Etab.

Baita Masaje Terapeutikoa eta Drenaje Linfatikoa ere.

Isabel Benito eta Aitziber Payrosen kontsulta:

Bidekurutzeta, 46 behea

Txanda hartzeko deitu 11:00etatik 16:00etara 76 52 62 telefonora.

ETXEBIZITZA

Garajea salgai Burdiñan-ten. 2,6 milioi. ☎ 76 31 79.

Txalet bat erosi edo alokairuan hartuko nuke Deba Garaian. ☎ 76 91 30.

Pisua salgai Artekalen. ☎ 76 34 36.

Bi oheko logela berria salgai. ☎ 76 51 78.

Pisua salgai Barrenkalean. ☎ 76 41 38.

Pisua salgai Martokuan. ☎ 76 59 96.

Pisua salgai Aranerrekan. ☎ 70 82 90.

Garajea salgai Santa Marinaran. ☎ 76 18 95.

Pisu amueblatua salgai Mugertza kalean, 3. zenbakian. ☎ 76 53 79.

Pisua salgai San Pedro kalean, lehen pisuan. Bulegorako egokia. ☎ 76 21 58.

Kontsultarako gelak alokairuan jartzen ditut Koldo Eleizalden, Bolun. ☎ 76 58 91.

Arkaian, Araban, 15.460 m2 salgai. ☎ 76 63 27.

Pisua salgai Arrizurin. Garajea. ☎ 76 55 28.

Pisuak salgai Barrenkalean. ☎ 76 53 13.

Pisua salgai Soraluzen. 4 milioi. ☎ (94) 625 65 77.

DENETARIK

Ume-kotxea eta aulkia salgai. ☎ 76 40 56.

Bi oheko logela berria salgai. ☎ 76 51 78.

Donostian pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 46 03 98/76 25 59.

Donostian (Egian) pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 76 59 50 (Gurutze).

Donostian (Grosen) pisu bat osatzeko neska bat behar da. ☎ 76 28 89.

Derbi FDS motorra saltzen dut. Egoera onean. ☎ 76 41 15 (Iñaki).

Bigarren eskuko botoi-akordeoia erosi nuke. ☎ 76 11 96.

Taberna-erretegia traspasatzen da. ☎ 76 24 45.

Macintosh ordenagailu berria salgai. ☎ 76 50 59.

Telebista txikia salgai, 14 pulgada ☎ 908 67 09 10.

Irrati kontrolako abioia salgai. ☎ 76 51 94 (gauzez).

286 ordenagailua salgai, 40 mega. ☎ 76 58 81.

Siames katakumak salgai. ☎ 76 17 35.

Dalo oilagor-txakur txapeldunaren kumak salgai. ☎ 74 28 64.

Ford Orion kotxea (SS-AF) salgai. ☎ 76 32 91.

LANA

Aleman irakaslea behar da. ☎ 76 27 59.

Ingeles klaseak. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Frantses klaseak. ☎ 76 27 16 (Estephanie).

Zientzietan lizentziatuak, OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 50 11 (Rosa).

Euskara klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 15 76.

Mate eta fisika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

OHO eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

Zaharrak zaintzen ditut gauzez. ☎ 76 11 11.

Mate, fisika, kimika eta diedriko klaseak ematen ditut. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke ☎ 76 20 88.

Neska euskaldun batek haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 64 60.

Neska batek garbiketarako egingo lituzke (orduka). ☎ 76 27 68 (Pili).

Astean behin etxeko lanak egiteko andrea behar dut. ☎ 76 13 53 (Birjinia).

Neska batek haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 40 85 (goizez).

Pepelu

Ilepaindegia

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78



ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 **BERGARA**

IKUSBI

**ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK**

Irala, 5 ☎ 76 53 09

**BEHEKO
TABERNA**

**Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

BONOFOTOA



Mari Paz Ibisate

Mari Paz Ibisate jaso du oraingo honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galderak berak asmatu dituelako, eta ondoren egindako zozketan bere txartela atera delako. Bergarako UNEDen zein urtetan hasi ziren klaseak ematen eta zein zen orduan zuzendari galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **1976ko azaroaren 4ean eta Jesus Arpal** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Mari Paz Ibisateri** eman dizkiogu. Zorionak!!

Zeintzu dira baserri hauen izenak eta zein auzotan daude?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

1 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. A Ze FLAXA ETXAGI	33	11	60	14
2. ERROTAGAIN	26	11	51	22
3. JAUIA OH ZEREZOS	24	12	43	33
4. BAR CANALEJAS	23	11	37	26
5. MONGATXURRA	13	10	32	32
6. AZPEITXI JATETXEA	13	11	36	37
7. OGIZUN	13	12	31	49
8. BILDURBAREK OPEL/LAM	12	12	38	44
9. ORTZI	12	12	26	41
10. ARLOTEAK/OILAGORRA	10	11	46	32
11. PAGOMENDI	9	11	25	42
12. UFALA	8	12	31	41
13. MADURA INDUSTRIAS GOI	4	12	22	39

2 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. KAYAK OS JARDINEIROS	23	12	49	31
2. ETXAGI	23	12	44	42
3. UVE BIKOITZA JAM	22	12	35	38
4. ARTUSAMAK BERGATRANS	21	11	47	34
5. SOROPOTROAK	20	12	50	24
6. HALTZARI	18	12	40	29
7. EZINLEIKE	19	12	35	47
8. LA JUVE	17	12	36	33
9. AGIRREBEÑA JATETXEA	15	12	30	35
10. ERI	13	12	36	34
11. AGIÑASPI	11	12	29	48
12. INDARGORRI	10	12	15	26
13. AUTOBEREZI	7	11	32	39

3 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. GUADALEST	30	12	40	21
2. FAC	24	12	46	27
3. NEKROFILIKOS	24	12	50	40
4. PJS	23	12	39	25
5. NAHIKARI HOOLIGANS	22	12	34	41
6. TXIPIRON	18	12	35	29
7. JAKINA PATXARAN TEAM	16	12	46	33
8. EH BITERRAK	14	12	32	40
9. IGANDEKOAK	14	12	21	32
10. MOSKIS	12	12	37	22
11. MRW	10	12	28	47
12. CONSTRUCCIONES BERGARA	8	12	26	47
13. GANBARA	7	12	26	45

4 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MANITOU	36	12	90	15
2. ARBE KIROLAK	31	12	70	27
3. ETENGABE	25	12	38	23
4. MATXAKATEGI	23	12	36	22
5. OSINTXU	22	12	46	20
6. XURRUPAK	21	12	28	36
7. SLO	19	12	46	48
8. KOMANDO PIPERRAK	13	12	38	56
9. AMILOTX	10	12	22	43
10. PANORAMIX	10	12	38	42
11. PATA NEGRA	9	12	28	63
12. ALDOKA MALDOKA	5	12	26	46
13. POLIDEPORTIVO TABERNA	4	12	19	67
14. PITIXAK	0	0	0	0

Jokoz kanpo



Imanol Agiriano

EH BITERRAK

ZER MODUZ TXAPELKETA?

Gaizki, aurten erdiz purdi gabiltza eta.

ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA ETA TXARRENA?

Onena, Lizarralde eta Osinalde jokalaririk eta txarrena... gainontzeko guztiak. Egia esan txar samarrak gara.

KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Bai, atezaina naiz eta baloia areaz kanpo eskurarekin hartzeagatik kalera bota ninduten behin.

PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?

Goizez.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

Errotagain.

JOKALARIRIK ONENA?

Fernando Salinero.

SARTU DUZUEN GOLEADARIK HANDIENA?

Ezinleike taldeari 17 gol sartu genizkion.

ETA JASOTAKOA?

La Juve taldearen kontra 18 eta 0 galdu genuen behin.

LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Ronaldo.

MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Carl Lewis.

EUSKAL HERRIKOA?

Abraham Olano.

JATEKO PLATER BAT?

Angulak.

■ EMAITZAK

MONGATXURRA-BAR CANALEJAS	0-1
MADURA INDUSTRIAS GOI-JAUIA OH ZEREZOS	2-3
OGIZUN-ORTZI	2-1
UFALA-ARLOTEAK	1-0
LA JUVE-AGIRREBEÑA JATETXEA	3-0
SOROPOTROAK-INDARGORRI	4-2
ERI-AGIÑASPI	3-1
HALTZARI-UVE BIKOITZA JAM	3-2
PJS-MRW	5-0
TXIPIRON-NAHIKARI HOOLIGANS	3-5
NEKROFILIKOS-EH BITERRAK	5-3
IGANDEKOAK-GANBARA	1-4
FAC-CONSTRUCCIONES BERGARA	4-4
MOSKIS-GUADALEST	2-4

■ PARTIDUAK

Zapatuan barruan

09:00: AMILOTX-PANORAMIX • UVE BIKOITZA JAM
10:00: ARTUSAMAK-UVE BIKOITZA JAM • AMILOTX
11:00: ETXAGI-EZINLEIKE • ARTUSAMAK
19:00: ERROTAGAIN-MONGATXURRA • AUTOBEREZI
20:00: LA JUVE-AUTOBEREZI • MONGATXURRA

Zapatuan kanpoan

09:00: FAC-GANBARA • NEKROFILIKOS
10:00: NEKROFILIKOS-CONSTRUCCIONES BERGARA • MOSKIS
11:00: MOSKIS-NAHIKARI HOOLIGANS • GUADALEST
12:00: MRW-GUADALEST • ETXAGI
13:00: ETXAGI-EZINLEIKE • MRW

Domekan barruan

11:00: TXIPIRON-PATXARAN TEAM • EH BITERRAK
12:00: PJS-EH BITERRAK • ERI
13:00: KAYAK OS JARDINEIROS-ERI • PJS
16:00: AZPEITXI JATETXEA-PAGOMENDI • ARLOTEAK
17:00: ARLOTEAK-MONGATXURRA • BAR CANALEJAS
18:00: A ZE FLAXA-BAR CANALEJAS • MONGATXURRA
19:00: ARTUSAMAK-AUTOBEREZI • AGIRREBEÑA
20:00: AGIÑASPI-AGIRREBEÑA JATETXEA • AUTOBEREZI

Domekan kanpoan

12:00: ALDOKA MALDOKA-SLO • KOMANDO PIPERRAK
13:00: KOMANDO PIPERRAK-XURRUPAK • ALDOKA MALDOKA
16:00: MANITOU-ETENGABE • POLIDEPORTIVO TABERNA
17:00: OSINTXU-POLIDEPORTIVO TABERNA • MATXAKATEGI
18:00: ARBE KIROLAK-MATXAKATEGI • OSINTXU

■ OHARRAK

ANTOLAKETA BATZORDEAK AGIRREBEÑA TALDEARI 3 PUNTU KENDU DIZKIO PARTIDUA JOKATZEARA EZ AGERTZEAGATIK ETA MOSKIS TALDEA HURRENGOAN ARBITRATZEARA JOATEN EZ BADA TXAPELKETATIK KANPORATUA IZANGO DELA JAKINARAZI DU.

TXINPARTAK

Eneritz Muguruza
Estatuko
txapelketan

Asteburuan Puerto de Santa Marian jokatuko diren Estatuko igeri txapelketan parte hartuko du Eneritz Muguruza bergararrak. Muguruza 100 metro estilotan gutxienezko marka lortu du eta Leire Zezeagarekin batera Andaluziara joango da.

Antonio Merino
2. Gasteizen

Antonio Merino korrikalari antzuolarra 2. postuan sailkatu zen joan zen igandean Gasteizen jokaturako Euskadiko kross txapelketan. Merinok azken momentura arte irabazteko aukera izan zuen, baina azkenengo metroetan esprintean Ivan Sanchez arabarrak irabazi egin zion 3 segunduko aldearekin.

BKEko saskibaloiko kadete mailako
neskak liderraren kontra asteburuan

BKEko kadete mailako nesken saskibaloiko taldeak asteburu garrantzitsua du. Izan ere ostiralean atzeratuta zuten partidu bat jokatu dute Añorgan eta bihar, Donostian, Aldapetaren kontra neurtuko dituzte indarrak. Donostiarrak lehen postuan daude, partidu bakarra galdu dutelarik. BKEkoek, berriz, hiru partidu galdu dituzte eta laugarren postuan daude.

Taldeko entrenatzaileak, Iñigo Martinek, adierazi digunez, baditu itxaropenak bi partiduak irabazteko. *"Añorgaren aurka irabazi egin behar dugu. Aldapetaren kontra irabazteko arazo gehiago izango dugu, baina taldea ondo dabil eta ondo jokatzen badugu irabazteko aukerak izango ditugu"*.

Begararrak Gipuzkoa mailako kadeteen 2. mailan daude eta mailaz igozteko bi onenen artean sailkatu behar dira. Oraindik liga bukatzeko




Helburua hiru onenen artean sailkatzea da.

bigarren itzulia osorik geratzen zaie. Mailaz igozteko balute, ez lukete datorren urtean goragoko kategorian jokatzeko aukerarik izango. *"Igo arren datorren urtean jubenil mailan jokatu behar dugu. Beheko mailatan bi urte barrura arte ez dago neskarik eta datorren urtean kadete adina bakarrik 6 jokalarik izango dute eta derrigorrez mailaz igo behar dugu"*.

Astero hiru ordu
entrenatzen

Astero 3 ordu entrenatzen dute Mariaren Lagundiko kiroaldegian eta batez ere jaurtiketak eta defentsa hobetzen saiatzen dira. Mariaren Lagundian entrenatzen dute, eta etxeko partiduak zapatu guztietan eguerdiko 12:15etan Labegarieta kiroaldegian jokatzen dituzte.

IKER KOTX



Zezeagak ezin txapela jantzi

Jose Mari Zezeagak ezin izan zuen Estatuko binakako txapela jantzi 22 eta 14 galdu baitzuen, Eugirekin batera, Lasa eta Retegiren aurka domekan jokaturako partiduan. Hasieran partidua berdindurik joan zen baina, 14 eta 16ko emaitzatik Retegi eta Lasa zuzenean 22raino joan ziren. Zezeaga ez zen gustora geratu egindako lanarekin eta berriz ere finalean huts egin du. Halere, oraindik 2 urte geratzen zaizkio Altirekin eta daukan sasoi eta jokoa mantentzen badu txapela etorriko da. Azpimarratzekoa da Uberakoak partiduan zehar izandako animoak Bergararik joandako pilotazale talde batek etengabe animatu baitzuen.

KARTELDEGIA

ESKUBALOIA

◆ Bergara-Urrietako

Kadete neskak.

Zapatua, 17:45.

Kiroldegia.

SASKIBALOIA

◆ Bergara-Ibai Bera Berea

Senior neskak.

Zapatua, 16:15.

Kiroldegia.

◆ Bergara-Goierri

Junior mutilak.

Zapatua, 16:30.

Mariaren Lagundia.

◆ Bergara-Askatuak

Kadete mutilak.

Zapatua, 10:00.

Mariaren Lagundia.



ESKOLA KIROLA

◆ Walter-Institutua

Zapatua, 11:00.

Miguel Altuna Institutua.

◆ M. Lagundia-Los Txistis

Zapatua, 12:00

Miguel Altuna Institutua.

◆ MP-Miguel Altuna Institutua

Zapatua, 12:00

Miguel Altuna Institutua.

Jesus Jauregi

Herriko igeriketaren bultzatzailea

Bergarako Kirol elkarte-ek emandako saria jaso du azken 25 urteetan herriko igeriketaren alde egindako lanagatik. Horri buruz eta beste gauza batzuei buruz hitz egin dugu.

- Pozik lortutako sariarekin?

- Bai, beti da pozgarria norbait egindakoarekin gogoratzea.

- Nola hasi zinen Bergara Igeri Elkarteak?

- Duela 25 urte Bergarara igeri erakustera etorri nintzen. Igerilekuak zabaldu eta lanean hasi nintzen. Lehenengo helburua Bergaran igeri elkarte bat sortzea izan zen eta izan nituen lehenengo ikasleekin elkarteak sortu genuen. Ni Bergarara 1971ko abenduan etorri nintzen eta hurrengo urteko martxoan Gipuzkoako igeri txapelketa antolatu genuen. Apirilean "Vasco-Navarro" antolatu genuen eta Bergarako kronometatzaileekin antolatu genuen. Urte bereko ekainean lehenengo aldiz 20ren bat igerilarirekin Tolosara joan ginen txapelketa batean parte hartzea.

- 25 urte hauetan zerk eman dizu poz handiena?

- Momentu on asko izan dira, baina kirol mailan Huelvan 200 m estilotan Jon Muniategirekin infantil mailako Estatuko txapelketa lortzea izan da poztasun handiena. 75ean Gipuzkoa mailako lehen tituloa lortu genuen emakumezkoen taldearekin

eta hori ere oso polita izan zen. Organizazio mailari dagokionez 78an Euskalerrri mailako lehenengo txapelketa antolatu genuen Bergaran. 1976an erabaki politiko baten ondoren Euskadi eta Nafarroa mailako txapelketak desagertu egin ziren, baina esfortzu handiak egin ondoren Euskalerrri mailako lehenengo txapelketa Bergaran egitea lortu genuen.

- 25 urteak ospatzeko zerbait antolatzeke asmoa duzue?

- Bai, apirilerako Euskalerrriko herrialde mailako selekzioen txapelketa antolatzea eskatu dugu.

Aste horretan 25 urteei buruzko aldizkari bat ateratzeko asmoa dugu, elkarteak ibilitako guztien artean afari bat egiteko asmoa era badugu eta argazki erakusketaren bat ere antolatzeke asmoa dago.

- Ze egoeratan dago gaur egun Bergara Igeri elkarteak?

- Egoera txarrean izan gara, batez ere Eskola Kirola martxan jarri zutenetik. Horrezaz gain, haurrek kirol aukera zabalagoa dute. Halere, gaur egun nahiko egoera onean gaude. Talde gazteak dugu eta ondo dabilten parte hartzen duten txapelketetan.



"Elkartearen 25. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuko dira".

Euskalerrriko lehenengo txapelketa Bergaran antolatu zen 1978an"



Argazkia: Luis Larrañaga, "Kikio"

Karta Txapelketa Pertxan

Goiko argazkian orain urte batzutako herriko karta txapeldunak agertzen dira. Argazkia orain 17 bat urtekoa da eta Pertxa elkartearen aterata dago. Pertxan jokaturako karta txapelketan gazteak nagusitu zitzaizkien jokalariek beterranoek eta, harro-harro, kopa eskuan eta txapela buruan atera ziren Pertxatik egun hartan... Ohizko sari banaketaren ondoren, kamara aurrean jarri eta argazki oroigarria atera zuten argazkiak. Horra hor argazkian agertzen diren izenak, ezkerretik eskumara:

Goian: Luis Larrañaga "Kikio", Xabier Arraia, Roberto Nieto, Juan Carlos Cusi, Martin Juaristi, Iñigo Urrutia, Xabier Mujika, Xabier Errasti, Jose Ignacio Berraondo eta Eduardo Muñamendi.

Aurrean: Juan Mari Vicente eta Luis Jabier Martinez.

Eserita: Beatriz Arizmendi, Maite Fernandez eta Garbiñe Gantxegi.

Industria
homikuntzak

U
UNIFE

Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

zumelaga
JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!



KIÑU

ZURE JAUNARTZE ARGAZKIETARAKO
TXANDA HAR EZAZU.

Kiñu Argazkidenda, Barrenkalea, 35 Tlf.: 76 58 05



HIRU


ARROZTEGIA

ATEAK • LEHIOAK • ZORUAK • PVC

Antigua auzoa z/g
Tlfnoa: 76 63 59


20577
ANTZUOLA

ATEZ ATEKO ENPRESETAKO PAKETERIAN ESPEZIALISTAK



GIPUZCOANA
Faketa eta paketeen gizona eta bereziki

BERGARA (GIPUZKOA)
San Juan Erreka. Elgetara bidea.
Tfnor: 76 36 42 - Faxa: 76 54 25.


GIPUZCOANA
Paketeen gizona eta bereziki